

PEDAGOGIA NERABEZAROAN
LANAREN ERABILERA
DIDAKTIKORAKO JARRAIBIDEAK

Lege-gordailua:

B:30826-2005/B:30827-2005/B:30828-2005/B:30829-2005
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak onetsia: 2005/07/18



TIBIDABO EDICIONES-K, S.A.

Liburu batek eta lau bideok osatzen dute *Pedagogia nerabezaroan* lana.

Material horrek bi helburu ditu: alde batetik, tresna bat da, nerabeekin diharduten profesionalek (bigarren hezkuntzako irakasleak, tutoreak, orientatzaileak, zuzendaritza taldeak, hezitzaileak, erakundeak...) nerabeen gurasoak orienta eta aholka ditzaten; eta bestetik, nerabeak berak orientatzeko tresna ere bada, tutoretza orduetan lantzeko proposamenen bidez. Horiek guztiak 213/1994 Dekretuko 4. artikuluko b) eta c) ataletan xedatutakoari lotuta daude.

Nerabezaroak DBHko ikasleen gurasoak biziki kezkatzen eta nahasten ditu, eta prozesu hori ulertzea zaila egiten zaie. Horregatik, askotan, gurasoek orientabideak eskatzen dizkiete irakasleei, ikastetxeko zuzendaritzari edota hezkuntza erakundeei, beren hezitzaile zereginen lagun diezaieten.

Ikastetxe eta hezkuntza erakunde askok gurasoentzako jarduerak antolatzen dituzte, nerabeen gurasoak estuturik, galdurik eta orientaziorik gabe daudela ikusita. Hezkuntzako profesionalek jakin badakite, familiak ondo informatzea eta haiekin elkarlanean aritzea oso mesedegarria dela, gazteek hezkuntza prozesu orekatua izan dezaten.

Heztea gai konplexua da. Egun, aldaketa handiko garaian bizi gara, eta ondorioz, erreferentziak, irizpide etikoak, arauak eta abar galdu ditugula pentsatu ohi dugu. Horregatik, nerabezaroari eta hezkuntzari buruz hausnartzeko astia izatea oso baliagarria izan daiteke hezitzaile guztientzat, oro har, belaunaldi gazteei pertsona gisa hezteko duten zereginen lagunduko baitie.

Bideoek aukeratutako atalaren ikuspegi orokorra ematea errazten dute, eta atal horri buruzko eztabaida pizteko balio dute. Gidoi bat oinarri hartuta, jarraibideak proposatzen ditugu. Jarraibide horiek nerabezaroak eta gizarteak sor dezaketen estutasunari aurre egiten lagunduko digute, eta baliabideak emango dizkigute hezkuntza-

zereginen estrategikoak, errealistak, baikorrak eta irekiak izan gaitzen.

Bai liburuan, bai bideoetan (edo DVDetan), gai berak jorratzen dira. Kapitulu guztiek egitura bera dute. Egitura horrek hiru atal ditu: Gaiaren planteamendua, alerta-seinaleak eta aholku praktikoak.

Bideoan liburuko testuaren edukia errepikatzea oso praktikoa da. Kasu jakin bakoitzean jorratuko den gaia hautatzeko eta ikus-entzunezkoen bidez lantzeko aukera ematen du. Horrela, gaia modu atseginean eta denen artean lantzen da. Gainera, bideoak liburuko informazioa osatu egiten du. Oso desberdinak diren lau gazteren jokabidea azaltzen du, landutako gaietako gaurkotasuna eta errealismoa emanez.

Bideoak erabiltzeko, guraso talde bakoitzaren beharrezkoak eta kezkei egokitzen zaizkien gaiak aukeratzea gomendatzen dugu. Esate baterako, ikastetxeetan landutako diren gaien programazioa gazteen garapen aroen arabera izatea komeni da.

Liburuaren lehenengo kapitulua nerabeekin diharduten irakasleentzat eta hezkuntzako profesionalentzat da. Bigarren hezkuntzako irakasleek hezkuntza-funtzio integrala izan behar dute. Ikasleei irakatsi ez ezik, haien heziketako garapen-une orotan lagundu ere egin behar diete. Hala, bada, profesionalentzako lehen atal horren helburua da laburpen erabilgarri bat eskaintzea, nerabezaroko garapenaren eta eboluzioaren inguruan dauden teoriari buruz eta hezkuntza-estrategia berrienera buruz.

Horretarako, edukia 4 ataletan banatu da. Hain zuzen, lau atal horiek liburuan zehar lantzen diren berberak dira. Hona hemen:

1. Nerabezaroen hezte
2. Komunikazio-trebetasunak hezkuntzan
3. Nortasun integrala eratzea
4. Ikasteko trebetasunak eta estrategiak

Profesionalentzako lehen kapitulu horretan, egungo hezkuntza-sistemak oinarri dituen eboluzio teoriari buruzko laburpena eskaintzen diogu irakurleari.

Bigarren kapitulua komunikazio-trebetasunei buruzkoa da. Trebetasun horiek oso garrantzitsuak dira irakaste-ikaste prozesuan. Hezkuntza-jardunean erabil daitezkeen elementu praktiko batzuk aipatzen dira. Elementu horiekin nerabearekiko komunikazio-prozesua erraztuko da.

Hirugarren kapituluan hezkuntza emozionalaren garrantzia dago jasota, oso laburbilduta. Era berean, eguneroko irakaskuntza-jarduna osatzen lagunduko duten elementuak proposatzen ditu.

Profesionalagoa den atal hori bukatzeko, eta liburuan eta bideoetan lantzen diren blokeei lotuta, laugarren kapitulua dugu. Kapitulu horretan neska-mutil bakoitzarekin egotea oso garrantzitsua dela gogorarazten da, eta, banakako aholkularitzan kontuan hartu beharreko hainbat ikaskuntza teknika-aipatzen da.

Bideo edo DVD bakoitza liburuan lantzen den bloke bakoitzari dagokio. Hona hemen:

- A. Nerabeak ezagutzea
- B. Komunikazioa
- C. Astialdia eta jokabide arriskutsuak
- D. Ohiturak, antolatzea eta ikastea

Bloke eta bideo bakoitzeko 6. eta 7. kapituluak nerabeentzat dira. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako (lehenengo eta laugarren mailak bitartean) tutoretza-orduetan erabiltzea gomendatzen dugu. Derrigorrezkoaren ondoko hezkuntzako (batxilergoa, erdi mailako heziketa zikloak) tutoretza-orduetan ere erabilgarriak izan daitezke. Ikus-entzunezko euskarriak, batetik, eta gaurkotasun handiko oso lau gazte desberdinen parte-hartzeak, bestetik, bigarren hezkuntzako ikasleek lantzen diren gaiari arreta jartzea ahalbidetuko dute.

Kapitulu bakoitza ikusiz, taldearen baitan eztabaida sortzea da helburua. Horrela, irakaslearen, tutorearen, orientatzailearen eta abarren gidaren bidez, ikasleak kezkatzen dituzten gaiak buruz eztabaidatuko da, eta kasu bakoitzerako jarraibideak emango zaizkie.

Gainerako gaiak beren hezitzaile-rolari buruz hausnarketa egin nahi duten helduekin lantzekoak dira. Bideoko aktoreek oso ekarpen garrantzitsua egiten dute, gaurkotasan handiko ikuspegia eskaintzen baitute nerabeek egiten dutenari eta pentsatzen dutenari buruz. Hala ere, baliagarria suerta daiteke kapituluren bat gazteekin zuzenean lantzea. Kasu horretan, ezinbestekoa da profesionalaren ekarpena, beharrezkotzat jotzen duenean, esandakoak argi eta zehatz ditzan eta haien ingurunea eman dezan.

Hona hemen kapitulu bakoitza ikustean kontuan hartu beharreko jarraibide didaktiko batzuk:

A. BLOKEA: NERABEAK EZAGUTZEA

Lehenengo bloke hori nerabeen ezaugarriei buruzkoa da.

Gurasoentzako eta hezitzaileentzako kapituluak

1. kapitulua. Aldaketa handien aroa.

Kapitulu hori, batik bat, seme-alabak DBHn hastear dituzten gurasoekin lantzea gomendatzen dugu. Gurasoek larritasuna sentitzen dute aldaketengatik, seme-alabek lehen hezkuntza uzten baitute eta nerabezaroaren lehen zantzuei antzematen baitiete.

Agian gertaerak aurreratzen ari gara, eta seme-alabak oraindik haurrak baino ez dira. Dena den, haien lehenengo aldaketak oso gertu daude. Aldaketak gertatu baino lehen, gerora nola jokatuko dugun aurrez ikusteko une egokia da.

Eztabaida izan daiteke seme-alabei antzemandako aldaketa batzuek gurasoengan sortzen duten kezka buruz.

Ulertarazi behar zaie oso garrantzitsua dela orain osasun-ohitura egokiak bermatzea, hala nola lo-orduak zaintzea, dieta orekatuak izatea, eta abar.

2. kapitulua. Norberaren nortasunaren bila.

Kapitulu honen harira, familia gehienen baitan eztabaidak sortzen dituzten gaiak lan daitezke.

Komeni da taldea zuzentzen duen pertsonak gurasoen ekarpenak lortzea, arazo horietako batzuk nola konpontzen dituzten azalduz. Horrela, bildu direnen artean elkarrizketa eta lankidetzak sortuko dira.

Gurasoak talde edo ikasgela berekoak badira, beren seme-alabek antzeko adina izango dute. Ondorioz, familia horietako neska-mutilek antzeko beharrak izango dituzte. Hori dela eta, mugen inguruan jarraibide batzuk koordinatze aldera bidera daiteke bilera, (esaterako, irteteko orduak, dirua, asteburuko jarduerak...).

3. kapitulua. Nerabeen pentsamoldea.

Kapitulu horretan nerabeak dituen aldaketa kognitiboak gogorarazi nahi dira. Halaber, kezkatzen eta sarritan larritzen duten gaiak ere jorratzen dira.

Helduei ahaztu egiten zaigu nerabeak izan ohi duen sufrimendua, kezkatzen duten gaiak asko baitira.

Eztabaidaren mamia honako hau izan daiteke: haiekin une bakoitzean nola jokatu behar dugun, eta, batez ere, nola mailakatu behar ditugun eskakizunak eta mugak adinaren arabera. Argi dago 12 edo 13 urteko neska-mutilak eta 17 edo 18 urtekoak ez direla berdinak. Horregatik, ematen duen baino lan zailagoa izan arren, helduok eskakizunak eta arauak une bakoitzaren arabera egokitu behar ditugu.

4. kapitulua. Segurtasun-falta, nerabearen ezaugarria.

Kapituluaren helburua honako hau da: gurasoei ulertaraztea nerabeak oso sentiberak direla, kritikei dagokienez.

Eztabaidan, egokia ez den zerbait adierazteko gurasoek darabiltzaten modu positiboak parteka daitezke.

Honako hauei buruz ere hausnarketa egin daiteke: seme-alabei maitasuna adierazten diegun moduari buruz, edota maitatzen eta balioesten ditugula sentitzeko duten beharrari buruz.

Gurasoek aipa dezakete balioespenak noiz egiten dituzten, eta horiek eraginkortasuna duten.

Guztion artean hitz egin dezakete bideoan azaltzen den iragarpenen teoriari (Pigmalion teoria) buruz.

5. kapitulua. Harremana helduekin, gurasoekin eta hezitzaileekin, bereziki.

Kapitulu hori ikusi ondoren, eztabaida familiako ordutegiei eta

seme-alabekin igarotzen dugun denborari buruzkoa izan daiteke:

- Zer jarduera mota egiten dugu elkarrekin?
- Zer egiten dugu oporretan, seme-alabak ondo senti daitezen eta familiako jardueretan parte har dezaten?
- Nolakoak dira familia arteko otorduak? Familiaren baitan elkarriketa pizteko balio al dute?
- Zenbat denbora ematen du familia bakoitzak seme-alabekin, eta haiekin hizketan?
- Seme-alabei gauzak azaltzen dizkiegu, edo galdetu baino ez diegu egiten, beren bizitza kontatuko digutelakoan?

6. kapitulua. Harremanak beste nerabeekin.

Kapitulu honetan lantzen den gaia, gurasoak gehien kezkatzen dituen alderdietako bat da; izan ere, seme-alaben lagunak, askotan, arrisku-faktoretzat edota mehatxutzat jotzen dira.

Interesagarria izan daiteke gure inguruko edo herriko eskolaz kanpoko jarduerak eta horiek egiteko guneak zein diren aztertzea. Guraso batzuek besteei informazio erabilgarria eman diezaiekete beren seme-alabek eskolaz kanpo edota asteburuetan egiten dituzten jardueri buruz.

Gurasoei ulertarazi behar zaie gazteen astialdia antolatzea behar-beharrezkoa dela haien bizigiroa ulertu nahi badute.

Hezitzaileentzako eta ikasleentzako kapituluak

7. kapitulua. Nork bere burua ezagutzea: Zer gertatzen zaizu? Zergatik?

Kapitulu hori Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen ziklorako gomendatzen dugu.

DBHko lehenengo ikasturteak une egokia dira, nerabeekin berekin nerabezaroaren gaia lantzeko.

Bideoa ikusi ondoren, honako ariketa hauek edo antzekoak egin daitezke:

- Gelan eztabaidatzea, egunero gutxienez 8-9 ordu lo egin beharrari buruz. Eztabaidaren muina izango da nerabearoan gorputzak energia asko erretzen duela, eta, ondorioz, indarrak berritu behar direla. Ohera goiz joatea erdiesteko proposamenak sortzea sustatu behar da.
- Dieta orekatua. Nerabearen gorputzak ahalegin osagarria egin behar du bere osaketarako. Horregatik, garapen fisiko egokia erdiesteko oinarrizko elementuak jasoko dituen dieta orekatu baten beharra aipatu behar da. Ikasle bakoitzak taula bat egingo du, aste batez jarraitu duen dieta jasoko duena. Ondoren, bikoteka aztertuko da, askotariko elikagaiak jan diren eta nahikoa otordu egin diren bereziki arreta jarritz.

8. kapitulua. Emozioei nola antzeman.

Adimen emozionalaren oinarrizko trebetasunetako bat norberaren emozioei antzemateko gaitasuna da.

Oso komenigarria da ikasleei laguntzea seinale emozionalei antzematen, haiek ulertzen eta haiei izena ematen, seinale horiek kontrola ditzaten eta haiei buruz hausnar dezaten.

Proposatutako ariketa:

Ikasleei eskatu banaka gogoratzeko eta idazteko noiz bizi izan duten honako emozio hauetakoren bat: barne herxura, tristura, beldurra, amorrua eta aspertzea.

Ondoren, horiei buruz bikoteka hitz egin dezatela eskatuko diegu, beren emozioaren arazoak eta sortu ziren erreakzioa azter ditzaten.

Azkenik, emozioaren aurrean bestelako erantzuna izateko proposatuko diegu, egoera hobeto kontrolatzea ahalbidetuko zuen erantzuna, hain zuzen.

Emozioa		
Emozioa sortu zuten arrazoiak	Emozioak sortu zuten erreakzioa	Proposatzen den erantzuna

Ondoren, bikoteka egindako azterketa hori taldean eztabaidatzea gomendatzen dugu.

B BLOKEA: KOMUNIKAZIOA

Bloke horrek komunikazioaren hainbat alderdi lantzen du, nerabeak hezteko ezinbestekoak direnak.

Gurasoentzako eta hezitzaileentzako kapituluak

1. kapitulua. Autoritatea helduei dagokie.

Kapitulu hori ikusi ondoren, azken aldian gertatu diren gizarte-aldaketei eta autoritate-kontzeptuari buruz eztabaida daiteke.

Zein da autoritatearen neurri egokia?

Autoritate eredu egokia zein den eztabaidatu behar duzue. Eredu horrek ez du zorrotzegia izan behar, baina, aldi berean, ez ditugu seme-alabak gehiegi babestu behar, ez eta haiei dena baimendu ere.

Gurasoek une batzuetan ez dakite nola jokatu behar duten. Hain zuzen, une horiek azal ditzaten eskatuko diegu gurasoei. Taldeak egoera bakoitzerako proposamenak egingo ditu, eta denen artean eztabaidatuko dira.

Eztabaida araei eta mugei buruz hitz egitera ere bidera daiteke. Nola jakinarazten dizkie arauak seme-alabei familia bakoitzak? Zer gertatzen da arauak betetzen ez badituzte?

2. kapitulua. Entzuten jakitea, behatzen jakitea.

Egungo ordutegien eta bizi-erritmoaren ondorioz, oso zaila da seme-alabei egunero gertatzen zaiena modu aktiboan entzuteko eta horri behatzeko uneak bilatzea.

Eztabaidarekin hasteko, honako egoera hau azal daiteke:

Etxera iritsi berriak zarete eta afaria prestatzen hasten zaretenean, zuen seme-alaba sukaldera sartu da. Dagoeneko olioia zartaginean jarri duzue, eta, une horretan eskolan izan duen gertakari bat kontatzen hasten da. Zein da zuen erreakzioa?

Egokienak ez izan arren, ditugun une guztiak aprobetxatu behar ditugu seme-alabei entzuteko.

Azalpena moztea beste aukerarik ez badugu, nola egin dezakegu, horrek gero neska-mutilaren kezken azalpena mugatu ez dezan?

3. kapitulua. Elkarrizketa.

Kapitulu hori ikusi ondoren, interesgarria izango litzateke gurasoen taldearekin hausnarketa egitea familia bakoitzak elkarrizketa eta seme-alaben konfiantza errazteko dituen moduei buruz.

Pentsatu behar dute ea egunero denbora tarte batez (txikia izanik ere) seme-alabekin modu lasaian eta argian hitz egiten duten, eguneko jardueri eta esperientziei buruz.

Seme-alabak larritzen edo kezkatzen dituen zerbait azaltzen hasten direnean, gurasoek duten erreakzioari buruz ere hausnarketa egin behar dute.

Eztabaidatu behar dute gazteei zuzenean galdetzen diegunean zer gertatzen den.

Elkarrekikotasunaren gaia azaldu behar zaie. Hau da, helduek hasi behar dute hizketan, helduen beren bizitzako eguneroko kontuak aipatuz; horrela, gazteek ere beren kontuak azaltzeko beharra sentituko dute.

4. kapitulua. Negoziazioa.

Askotan, hezten duten helduak zorrotzegiak direnean, egoera zailak eta konfiantza gutxikoak gertatzen dira. Hezteko, behar-beharrezkoa da malgutasuna. Dena den, kontu negoziatzek ere egon behar dute. Argi geratu behar da helduak direla arauak ezartzen dituztenak, eta haiek direla negoziatu daitezkeena edo negoziatu ezin dena zehazten dutenak.

Horiek horrela, negoziazioa seme-alaben hezkuntzan aurrera egingeko oinarritzko tresna dela esan daiteke.

Gurasoen taldea parte-hartzailea izanez gero, simulazio bat egitea proposa daiteke, kapitulu horretan azaltzen den negoziazioaren teknika praktikatzeko. Parte hartzen duten gurasoen proposamenak aintzat hartuz, egoera bat asmatuko duzue, eta, ondoren, bi pertsonak seme edo alabaren eta aita edo amaren rola jokatu dituzte, hurrenez hurren.

5. kapitulua. Maitasuna eta eskakizuna bateratzea.

Kapitulu horren gaia zigorrak eta haien eraginkortasuna da. Hezteko, egoera positiboak negatiboak baino komenigarriagoak direla oinarri hartuta, taldeak gai horri buruzko hausnarketa egin behar du. Azken aldi honetan, oso ohikoa da familietan gazteei gauzak erostea edota oparitzea zerbaiten truke. Horregatik, taldea zuzentzen duen tutoreak edo orientatzaileak oso ondo desberdindu behar ditu zoriontzia, gozotasuna eta gauza materialen truke eskatzea. Azken hori xantaia modukoa da, eta ez dio hezkuntzari mesederik egiten.

Zigorra erreakzio oldarkorra izan ohi da, eta sortu duen arrazoiarekin alderaturik, gehiegizkoa izaten da.

Guraso askok zigorra erabiltzen baino ez daki arauak betearazteko. Komeni da guztien artean zigorren eragozpenei buruz hausnarketa egitea, eta, aldi berean, taldeko gurasoek berek zigorraren ordezkotza erabilgarriak proposatzea.

6. kapitulua. Esaten ez digutena entzuten jakitea.

Nerabeak ez die gertatzen zaion guztia gurasoei kontatuko. Nerabeek behin eta berriz esango diete gurasoei dagoeneko helduak direla eta bakean utz ditzatela. Baina, kontuz, gurasoek nerabearen ondoan egoten jarraitu behar dute. Agian, ez haurrak ziren garaiko modu berean, baina haren ondoan egon behar dute. Beharrezkoa da gertatzen zaionari behatzea, eta, horrela, neska edo mutila kezkatzen duenari edota hari gertatzen ari zaionari buruzko informazio asko izango dugu.

Behatzeko, entzuteko, hitz egiteko, negoziatzeko... seme-alaben ondoan egon behar dugu. Hau da, gutxieneko denbora tartea egon behar dugu haiekin batera, eta haietaz arduratzen.

Gurasoek pasadizoren bat kontatu dezakete behatu dituzten gaiak azalduz, eta nola esku hartu duten, hezkuntzaren aldetik, behaketa hori oinarri hartuta. Gurasoek parte hartzeko gogorik ez dutenerako, komeni da taldearen arduradunak pasadizoren bat aurrez prestatua izan dezala.

Hezitzaileentzako eta ikasleentzako kapituluak

7. kapitulua. Harremanak helduekin.

Kapitulu hau, bereziki, DBHko lehenengo zikloko ikasleentzat gomendatzen dugu. Dena den, hirugarren edo laugarren mailakoentzat ere egokia izan daiteke.

Bideoa ikusi ondoren, taldeak honako gai hauei buruz eztabaidatuko du:

- Arauak egon behar al dira?

- Ahalegina egin behar al dugu, gurasoek eta helduek, oro har, guran konfiantza izan dezaten?
- Interesagarria al da gurasoekin jarduerak egitea?
- Gurasoek zuen lagunak ezagutu behar al dituzte eta zer egiten duzuen jakin behar al dute?
-

Eztabaidatzeko, bi talde egingo dira, bata proposamenaren aldekoa izango da, eta bestea, kontrakoa. Ondoren, eztabaida hasiko da, eta talde bakoitzak bere iritziaren kontrakoa aldeztu beharko du. Ariketa hori oso interesagarria da, neska edo mutil bakoitzak bere pentsamoldearen kontrakoa dena ere aintzat hartzen duelako.

8. kapitulua. Desadostasunak nola planteatu.

Negoiazioa gatazkak konpontzeko oso tresna baliagarria dela azaltzen da. Kapituluaren negoziatu ahal izateko egon behar diren baldintzak aipatzen dira, eta nola lor daitezkeen hitzarmenen bidezko konponbideak eguneroko gatazkak konpontzeko. Azkenik, negoziazio-prozesuan zehar kontuan hartu beharreko aholku praktikoak eskaintzen dira.

Bideoa ikusi ondoren, ikasleek zerrenda bat egin dezakete konpondu nahi dituzten egoera gatazkatsuekin. Egoera horiek hainbat lekutakoak izan daitezke: familiaren baitakoak, eskolakoak edota adin bereko pertsonekin sortutakoak.

Negoiazioan jarraitu beharreko prozesua idaztea komeni da.

Ondoren, ikasle boluntario batzuk eska daitezke, jaso den hainbat egoera simulatzeko. Ikasle batek helduaren rola jokatuko du, eta besteak nerabearena, eta negoziatzen saiatuko dira, ikasitako urratsei jarraituz.

Egoerari behatzen dioten ikasleei arreta jartzeko eskatuko zaie, ondoren negoziazioaren teknika hobetzeko proposamenak egin ditzaten.

C BLOKEA: AISIALDIA ETA JOKABIDE ARRISKUTSUAK

Bloke honetan hezkuntzako iradokizunak eskaintzen dira, nerabeek irizpide propioak izan ditzaten eta erantzukizunez jokatzeko ikas dezaten.

Gurasoentzako eta hezitzaileentzako kapituluak

1. kapitulua. Elkarrekin ongi pasatzea eta nerabeekin batera jarduerak egitea.

Kapitulu honen helburua honako hau da: familiek ulertzea behar-beharrezkoa dela seme-alabekin batera egoteko denbora izatea.

Norberaren ekintzek hezteko balio handia dutela ere nabarmentzen da kapituluan. Haurrek eta gazteek helduei behatuz ikasten dute. Kapitulua egokia da DBHko edozein ikasturtetako ikasleen gurasoekin lantzeko. Hala ere, hobe da gazteenen gurasoekin egitea. Helburua hezteko kontzientzia eta ohitura hartzea denez, hobe da lehenbailehen hastea.

Eztabaida gurasoei seme-alaba nerabeekin batera egitea gustatzen zaizkien jarduerari buruzkoa izan daiteke.

Hezkuntzaren aldetik askotan egiten ditugun gauza zentzugabeei buruz ere eztabaida daiteke. Saiatu behar dugu aztertzen ea diskurtso pedagogikoa bat datorren neska-mutilek egunero ikusten dituzten jokaerekin.

2. kapitulua. Telebista eta nerabeak.

Kapitulu honekin telebista erabiltzeko irizpideak eman nahi dizkiegu familiei. Telebista nola erabili jakinez gero, hezteko egokia izan daiteke. Egun, etxean telebista gehiegi ikusten da.

Horregatik, gurasoekin eztabaidatuz, telebistaren erabilera hobe daiteke. Hona hemen eztabaida pizteko galdera batzuk:

- Seme-alabek zenbat orduz ikusten dute telebista?
- Programazioa elkarrekin aukeratzen al duzue?
- Etxean telebista ikusteko ordutegiak zehazten al dituzue?
- Seme-alabekin hitz egiten al duzue elkarrekin ikusten dituzuen programei buruz?
- ...

3. kapitulua. Lehen maiteminak.

Kapitulu hau gurasoekin eta profesionalekin lantzeko da. Baina aktore gazteen ekarpenak interesgarriak eta gaurkotasun handikoak direnez, egokia izan daiteke DBHko azken ikasturteetako ikasleentzat zein derrigorrezkoaren ondoko hezkuntzakoentzat (batxilergoa, heziketa-ziklokoak).

Familien arteko eztabaidan interesagarria izango litzateke informazioaren gaia lantzea: norik ematen dien informazioa gazteei, noiz ematen dien. Gurasoen parte-hartzea aberasgarria suerta daiteke, haien artean irizpide ezberdinak azalduko baitira.

4. kapitulua. Nerabeak eta dirua.

Guraso batzuek aholkua eskatzen diete tutoreei zein ikastetxeetako aholkulariei, seme-alabei eman behar dieten diruari buruz. Beste kasu batzuetan, irakasleak edo hezitzaileak berak dira konturatzen direnak gazteek neurritz kanpo gastatzen dutela, eta kontsumo arduratsua zer den ez dakitela.

Horregatik, interesagarria da gai hori guraso taldean lantzea eta iradokizun batzuk ematea diruaren balioari buruz eta gazteen erabilerari buruz. Dena den, kontuan izan behar da oso gai pertsonala dela; beraz, garrantzia gehien kontsumo arduratsuen gaiari eman behar zaio.

Eztabaida izan daiteke neska-mutilei egiteko eskatzen dizkiegun lanei buruzkoa, eta haiek, familiako kide gisa, izan behar duten erantzukizunari buruzkoa. Seme-alaba nagusiagoak dituzten gurasoen kasuan, gazteek lan ordainduak izatearen egokitasunari buruz hitz egin dezakete.

5. kapitulua. Tabakoarekin, alkoholarekin eta beste droga batzuekin duten harremana.

Drogen kontsumoa nerabeen gurasoek duten beldurrik handienetakoa da. Ohartu behar dugu, egungo gizartean tabakoa, alkohola, eta legezkoak ez diren drogak kontsumitzea oso ohikoa dela. Nerabeak oso gaztetatik hasten dira drogen munduarekin harremanak izaten. Kapituluarekin batera doan bideoko protagonista gazteek legezkoak ez diren drogak kontsumitzen dituzte, eta, bideoan zehar ikusten denaren arabera, ohikoa zaie tabakoa eta alkohola kontsumitzea. Gurasoekin egiten den eztabaida seme-alaben adinaren arabera izango da. DBHko lehenengo zikloko ikasleen gurasoekin, batez ere, tabakoaren gaia landuko da, baina jakinarazi behar zaie haien semeek marihuana kontsumitzen hasteko aukera egon, badagoela. Nagusiagoak diren ikasleen gurasoekin droga mota guztien kontsumoari buruz hitz egingo da.

6. kapitulua. Beste arrisku eta arazo batzuk.

Kontuan izan behar da nerabe gehienek ez dutela berebiziko arazorik izaten nerabezaroan. Dena den, azken aldi honetan elikadurari loturiko arazoak areagotu egin dira, neskengan, batez ere. Mota horretako arazoei aurrea hartzeko aholkuak proposatuko zaizkie gurasoei. Taldearen arduradunak aipatu behar ditu zein diren elikadurako nahasketak izateko arriskua duten nesken ezaugarri ohikoenak. Helduek nahi gabe dituzten jokabide batzuek nerabeak bultzatzen dituzte beren itxura fisikoarekin gehiegi kezkatzera. Jokabide horiei buruz ere hausnarketa egin daiteke.

Gazte batzuen oldarkortasunari dagokionez, berriz, interesagarria izango da jokabide mota hori eragiten duten faktoreei buruz hausnarketa egitea, eta gurasoek ezagutu beharreko prebentziorako alderdiak aipatzea.

Hezitzaileentzako eta ikasleentzako kapituluak

7. kapitulua. Astialdia.

Kapitulu hau ikusi ondoren, ikasleek taula bat egin dezakete, astean zehar eta eskolaz kanpo egiten dituzten jarduera guztiak jasoko dituena. Astialdiaz egiten duten erabilera benetan hobetu nahi badute, ikasleei eskatu behar diegu ariketa hori modu zintzoan egin dezaten, hau da, daturik ezkutatu gabe.

Ondoren, binaka, taulan jarri dituzten jarduerak aztertu beharko dituzte.

Hobe daitekeen zerbaiti antzemanaz gero, komeni da aztertzea kasu bakoitzean gertatzen diren alderdi ilunak, eta kontrolatu behar direnak, baldin astialdiaren erabilera hobetu nahi bada.

Bukatzeko, ikasleek astialdirako ordutegi berria egin beharko dute, astean zehar egin nahi dituzten jarduera guztiak modu logikoan eta erabilgarrian antolatzen saiatuz.

8. kapitulua. Nola esan ezetz, ezetz esan nahi dudanean.

Asertibitatea da norbanakoak bere nortasuna adierazteko duen gaitasuna, ingurukoetsaitasuna pizteko beldurrik gabe. Asertibitateak nork bere burua konplexurik gabe eta modu konstruktiboan berresteko aukera ematen du, bai eta, besteei eraso egin gabe, nork bere eskubideak babesteko aukera ere.

Hala, bada, asertiboa izateko gaitasuna kontrolatzea oso baliagarria da zerbait desatsegina esan behar dugunean, ezetz esan behar dugunean, besteen kritika eta adierazpen iraingarriei edota kexuei eta eztabaidei aurre egin behar diegunean...

Asertiboa izaten ikas daiteke. Horregatik, kapitulua ikusi ondoren, ikasleekin hainbat egoerari buruzko simulazioak egiteko proposatzen dugu. Egoera horietan, ikasle batek besteari erantzun beharko dio, kapituluan azaldutako teknika asertiboak erabiliz. Esaterako:

- Disko akastuna
- «Baina»ren teknika
- ...

D BLOKEA. OHITURAK, ANTOLATZEA ETA IKASTEA.

Nerabezaroko ikasketa-prozesuari laguntzeko hausnarketak eta estrategiak ematen dira bloke honetan.

Gurasoentzako eta hezitzaileentzako kapituluak

1. kapitulua. Nerabeak hezten dituzten heldu guztien artean irizpideak bateratzea.

Kapitulu hori, bereziki, DBHko lehenengo zikloko ikasleen gurasoentzat gomendatzen dugu, une egokia baita gurasoen eta ikastetxearen arteko lankidetzari ekiteko. Azken aldi honetan, gurasoek ikastetxearen autoritatea zalantzan jartzen dute, gero eta gehiago. Bideoa ikusi ondoren, ikastetxe bakoitzak nabarmendu beharko ditu irakasleen, ikastetxeko zuzendaritzaren eta ikasleen gurasoen arteko lankidetzak hobetzeko garrantzizkotzat jotzen dituen alderdiak. Ikastetxeak familiekin arazoei buruz edota egoera larriagoei buruz hitz egiteko prest egon behar du, horrela, seme-alaben hezkuntza benetan guztien artean aurrera eramateko. Gurasoek eta irakasleek nerabeak hezteko estrategiak indartu eta batera gauzatu egin behar dituzte.

2. kapitulua. Ikasteko ohiturei arreta jartzea.

Ikasteko ohitura egokiak ezinbestekoak dira ikaskuntzarako. Horregatik, kapitulu hau DBHko ikasturte guztietarako gomendatzen da, betiere, irakasle taldeak gai hori ikasleen gurasoekin landu behar dela uste badu. Familiak nerabeak bultzatu behar ditu ikasteko ohitura egokiak izatera, eta, ondoren, ohitura horiek gainbegiratu behar ditu. Eztabaida eta gaia zenbateraino indartu talde bakoitzaren ezaugarrietara egokitzea gomendatzen da.

Bideoa gaira hurbiltzeko erabil daiteke. Gaia, ondoren, ikastetxe bakoitzeko hezkuntza- eta curriculum-proiektuaren arabera garatuko da.

3. kapitulua. Teknologia berriak neurritz eta neurritz gain erabiltzea.

Kapituluaren gai nagusia informatika eta Internet dira.

Familia askok aholkua eskatzen du ikastetxeetan nerabeek ordenagailua nola erabili behar duten galdetuz. Gero eta etxe gehiagotan dute Internet; horregatik, garrantzitsua da gurasoei laguntzea seme-alabek sarea nola erabili behar duten zehaztuko duten irizpideak finka ditzaten.

Gurasoei azaldu behar zaie gazteak adituak direla informatika- eta Internet-kontuetan. Horregatik, gurasoek seme-alaben laguntzaz balia daitezke horiek nola erabili ikasteko. Gainera, aldi berean, seme-alabekin batera egongo dira.

Ia nerabe guztiek telefono mugikorrak erabiltzen dituzte. Gai horren harira, gurasoekin batera daitezke ikastetxean horiek nola erabili zehazteko irizpideak. Gurasoek gai horri buruz interesa erakusten badute, mugikorra oro har nola erabili zehazteko irizpideei buruz ere eztabaida daiteke.

4. kapitulua. Egiten duten lanari buruzko interesa izatea.

Nerabeen emaitza akademikoak gurasoek duten interesari eta egin duten segimenduari lotuta daude. Pigmalion efektua nabarmendu behar da: «Seme-alabek arrakasta izango dutela sinesten baduzue, dituen gaitasunak garatzen lagunduko diezue».

Ondoren, parte-hartzaileei adibideak azaltzeko eskatuko zaie, haiek Pigmalion efektuari loturik ikusi dituzten kasuak kontatu ditzaten. Askotan jakintzat ematen da gauzak ondo egin behar direla, eta, ondorioz, seme-alabak ez ditugu zoriontzen edota ez ditugu haien arrakasta txikiak aintzat hartzen. Horri buruz ere hausnarketa egin behar da. Halaber, hausnarketa egin daiteke seme-alaben eguneroko lana ezagutzeko erabiltzen dugun denborari buruz eta hori egitearen garrantziari buruz.

5. kapitulua. Ikastea sustatzeko zenbait estrategia.

Kapitulu honetan hainbat estrategia ematen da seme-alabak laguntzeko ikasketetan arrakasta izaten. Alderdi garrantzitsua da gazteei aukera ematea egiten dutenarekin arrakasta izateko. Horretarako, gaztea ondo ezagutu behar da, eta bere benetako gaitasunei loturiko ahalegina eskatu behar zaio. Bestela, oso dema zailari aurre egin beharko dio, eta horrekin motibazioa kentzea baino ez dugu lortuko.

Gurasoek honako hauek hausnarketa egiteko gaitzat har ditzaten gomendatzen dugu:

- Seme-alabak motibatuta al daude ikasketekin?
- Horrela ez bada, zer egin dezakegu haien interesa pizteko?
- Zer egin daiteke emaitza akademikoak txarrak direnean?
- ...

6. kapitulua. Etorkizun akademiko eta profesionalari buruzko erabakiak.

Kapitulu hau, bereziki, DBHko laugarren mailako ikasleen gurasoentzat da. Bigarren hezkuntzako beste etapa batzuk, batxilergoa edo heziketa zikloak, esaterako, bukatzen dituzten ikasleen gurasoentzat ere gomendagarria da.

Gurasoei lagundu nahi diegu, haiek ere seme-alabei lagun diezaieten beren interesei, gaitasunei eta trebetasunei egokitzen zaizkien erabakiak hartzen.

Familiei hezkuntza sistemaren organigrama bat banatzea eta haien semeek bukatzeaz duten hezkuntza etapatik aurrerakoa azaltzea gomendatzen dugu. Gainera, gurasoei interesatu ohi zaie inguruan egin daitezkeen ikasketei buruzko informazioa jasotzea.

Hezitzaileentzako eta ikasleentzako kapituluak

7. kapitulua. Ikasketei aurre egitea.

Kapitulu hau, bereziki, DBHko lehenengo ikasturteko ikasleekin lantzeko da, hori une garrantzitsua baita ikasteko ohitura egokiak ezartzeko. Bideoa ikusi ondoren, honako ariketa hauek egitea proposatzen dugu:

- Eskola-ordutegia idaztea, etxean, ongi ikusten den lekuren batean, eskegitzeko.
- Eskolaz kanpoko jardueren ordutegia idaztea -etxeko lanak egiteko aurrez ikusten den denbora jarritz- etxean, ongi ikusten den lekuren batean, eskegitzeko.
- Ikasle guztiek eskola-agenda dutela eta erabiltzen dutela egiaztatzea.
- Laburpenak, eskemak, kontzeptuzko mapak eta abar egitea, ikasteko teknika aplikatu gisa.
- ...

8. kapitulua. Zure etorkizun akademikoa eta profesionala.

Kapitulu hori DBHko laugarren mailako ikasleentzat eta batxilergoa edo erdi-mailako heziketa-zikloak bukatzen ari diren ikasleentzat da.

Ikasleekin test bat egitea gomendatzen dugu. Test hori norberak zuzendu dezakeen horietakoa izan daiteke, eta horrek beren interesak eta gaitasunak aztertzen lagunduko die.

Ondoren, ikasleei banatuko zaien organigrama oinarri hartuta, egungo hezkuntza-sistema azalduko zaie. Organigrama hori ikasleen beren laguntzarekin eta parte-hartzearekin azal daiteke, eta etapa edota ikasketa mota bakoitzera sartzeko beharrezkoak diren tituluak aztertuko dira.

Azkenik, ikasleen eta familien arteko elkarrizketa erraztu behar da, gelan prestatutako inkesta moduko baten bidez, eta gai horretako proposamenak oinarri hartuta.

BIBLIOGRAFIA

1. **ÁLVAREZ, M. eta beste:** *La orientación vocacional a través del currículo y de la tutoría. Una propuesta para la etapa 12-16*, Graó argitaletxea, Bartzelona, 1991.
2. **AUSUBEL, D., NOVAK, J., eta HANESIAN, H.:** *Psicología educativa. Un punto de vista cognoscitivo*, Trillas argitaletxea, Mexiko Hiria, 1983.
3. **BRUNET, J.J., eta NEGRO, J.L.:** *Tutoría con adolescentes*, San Pío argitaletxea. Madril, 1993.
4. **CLARIANA, M.:** *L'estudiant de secundària, què en sabem?*, Barcanova argitaletxea, Bartzelona, 1994.
5. *Psicología de la instrucción: la enseñanza y el aprendizaje en la educación secundaria*, Horsori argitaletxea, Bartzelona, 1999.
6. **CORBELLA, J.:** *Padres e hijos: una relación*, La Columna argitaletxea, Bartzelona, 1993.
7. **FUNES, J.:** *Drogas y adolescentes*, Aguilar argitaletxea, Madril, 1996.
8. **GOLDSTEIN, A.P. eta beste:** *Habilidades sociales y autocontrol en la adolescencia*, Martínez-Roca argitaletxea, Bartzelona, 1989.
9. **GOLEMAN, D.:** *La práctica de la inteligencia emocional*, Kairos argitaletxea, Bartzelona, 1999.
10. **KOLBERG, L.:** *The psychology of moral development*, Harper and Row argitaletxea, San Frantzisko, 1984.
11. **LÓPEZ, F. eta beste:** *Desarrollo afectivo y social*, Pirámide argitaletxea, Madril, 1999.
12. **MARTÍNEZ, M.:** *Educadores Vs. Padres y Educadores*, Bartleby argitaletxea, Madril, 1999
13. **MASLOW, A.H.:** *Motivación y personalidad*, Díaz Santos argitaletxea, Madril, 1991.
14. **NOVAK, J., ETA GOWIN, D.:** *Aprendiendo a aprender*, Martínez Roca argitaletxea, Bartzelona, 1988.
15. **PASCUAL, F., ETA CUADRADO, M.:** *Programa de actividades para educación secundaria obligatoria*, Praxis argitaletxea, Bartzelona, 2001.
16. **VIGOTSKI, L.S.:** *El desarrollo de los procesos psicológicos superiores*, Grijalbo argitaletxea, Bartzelona, 1999.